



Bizkaiko gurasoen elkarte

IGEEI ZUZENDUTAKO EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA SAILAREN DIRU-LAGUNTZAK - 2016

Irailaren 1ean Guraso Elkarteentzako diru-laguntzen Agindua argitara eman zen EHAA. (EHAA 166 zk., 2016ko irailaren 1a)

1.- EPEAK: Eskabidea aurkezteko epea **2016ko irailaren 30ean bukatuko da.** (epeaz kanpo erregistratutako eskaririk ez da onartuko).

2.- LAGUNTZAK: Diru-laguntza hauek 2016 urtean zehar IGEek antolatzen dituzten jardueretarako dira.

3.- ESKAERAREN AURKEZPENEA: azken eguna, irailaren 30ean

- Eskaera **online** egiteko ziurtagiri elektronikoa izatea beharrezkoa da.
- **Aurrez aurreko** eskaera: dokumentazioa eskuratu eta **Zuzenean** bulegoan aurkeztu: Gran Vía 85, 48011 Bilbao (Bizkaia) (ordutegia: 8:00etatik 20:00ak arte)
- Eskaera **Correos**-eko bulego batetik bidaltzea. Kasu honetan, dokumentazioa (originala eta kopia bat) gutun-azal irekian eraman, correos-eko funtzionarioak zigilua jarri ondoren gutun ziurtatua bidali hurrengo helbide honetara: Delegación Territorial de Educación, Gran Vía 85, 48011 Bilbao (Bizkaia)

Ziurtagiri elektronikoa izan ezean aurrez aurreko aurkezpena egitea gomendatzen dizuegu.

4.- ERANSKINAK BETETZERAKOAN: 3 eranskin bete behar dira:
ESKABIDE PRESENTZIALA C - HHIE + IGEak

- **Datu pertsonalak:**
 - **Titularra:** IGEaren datuak
Izena: IFK txartelan agertzen den IGEaren izena
Lehen abizena/bigarren abizena: ez da bete behar
Identifikazio dokumentua: IFK
Zenbakia: IFK zenbakia jarri
Sexua: ez da bete behar
 - **Ordezkarria:** IGEaren zuzendariaren datuak
- **Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala:** "posta bidezkoa" aukeratu, jakinarazpenak kanal elektronikoa bidez jasotzeko ziurtagiri elektronikoa behar baita. Jakinarazpenak jasotzeko helbidea adierazi (ikastetxearen helbidea jarri ohi da).
- **Abisuak jasotzeko datuak:** IGEaren posta elektronikoa helbidea.
- **Hizkuntza:** Dagokiona aukeratu.
- **Erantzukizunpeko adierazpenak:**
 - **Bateragarritasun-adierazpenak:** aukeratu "Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin ..."
 - "Euskadiko **ELKARTEEN** erregistroan inskribatuta dago." Aukeratu.
- **Aurretik entregatutako dokumentuak:** ez markatu ezer
- **Baimenak:** markatu baimenak, aipatzen diren betebeharrak eginak dituzuela baieztatu ondoren.

GARRANTZITSUA: presidentearen sinadura eta IGEaren zigilua



Bizkaiko gurasoen elkarteak

IGEEI ZUZENDUTAKO EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA SAILAREN DIRU-LAGUNTZAK - 2016

GASTU-AURREKONTUA

1.- Elkartearen datuak: oso garrantzitsua erregistroan izena emateko data eta zenbakia (datu hauek zuen estatutuetan edo iazko diru-laguntzaren eskaeran aurkituko dituzue)

2.- Bere jardueraren ikastetxearen datuak: Ikastetxearen kodea zuzendaritzan galdetu edo aurreko ikasturteko eskaeran begiratu.

- **Ikasleen % hau hartzen duela adierazten du:** %100 jarri
- **Federazio hauetarkoa dela adierazten du:** BIGE

3.- Jardueren aurrekontua: Kontuan hartu IGEak **2016 urtean zehar** burutzen dituen jardueren programari egiten diola erreferentzia atal honek:

3.1.- **Ikasleei eta gurasoei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuak.** Hitzaldiak, guraso eskolak, euskara ikastaroak, familientzako informatika ikastaroak, tailerrak... Gastu hauek justifikatzeko orduan fakturaren %100a balioko du. ATAL HONETAN SARTZEN DIREN GASTUEK ESKATUTAKO KOPURUAREN % 50AREN BESTEKOAK EDO HORTIK GORAKOAK IZAN BEHARKO DUTE

3.2.- **Jarduera-gastuak eta azpiegitura-gastuak** Hurrengo gastuak sartu daitezke atal honetan: BIGEren kuota, telefonoa, ordenagailua, bulego materiala, formakuntza materiala... Gastu hauek justifikatzeko orduan fakturen %100a balioko dute.

3.3.- **Ikasleei eta gurasoei zuzendutako jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren gastuak** 3.1 .Justifikaziorako fakturen %50a balioko dute.

ESKATUTAKO GUTZIRA: JARDUEREN GASTUEN BATURA

ESKATUTAKO ZENBATEKOAREN GAINEKO PRESTAKUNTZA-EHUNEKOA: 3.1 ataleko zenbatekoa eskatutako kopuruaren %50a edo hortik gorakoa izan beharko du.

(Eskatutakoa guztira 3000€ balitz, 3.1 atalean gastua 1.500€takoa izan beharko litzateke gutxienez, dagokion fakturak beharko dira)

GARRANTZITSUA: *presidentearen sinadura eta IGEaren zigilua*

BESTE FINANTZIAZIO-ITURRI BATZUK

“Beste finantziazio iturri batzuk erabili dituzu?” eta “Beste laguntza batzuk eskatu dituzu?” ataletan EZ erantzun.

GARRANTZITSUA: *presidentearen sinadura eta IGEaren zigilua*

5.- DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Emandako diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da. Lehenengoa, diru laguntzaren %75a, EHAAr argitaratu ondoren, eta gainerako %25a “**gastuaren justifikazioa**” izeneko imprimakiarekin batera gastuen fakturak eta ordainagiri orijinalak aurkezterakoan egingo da.

Dokumentazio hau **2016ko abenduaren 10a** baino lehenago aurkeztu beharko da. Justifikazioa ez aurkeztea edo esleitutako diru-laguntza kopurua baino gutxiago justifikatzeak diru-laguntza galtzea suposatuko du.

Ebazpenaren edukia eta deialdiaren zehaztasunak gure webgunean kontsultatu eta eskuratu ditzakezue (www.bige.eus). Laguntza behar izanez gero telefonoz deitu 94 416 93 60 edo mail bidez harremanetan jarri: bige@bige.eus